



ELEKTRODORIK GABEKO BEHIN BETIKO TAUPADA-MARKAGAILUA INPLANTATZEARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Zertan datza prozedura?

Erritmoaren nahasmendu jakin batzuetan kablerik gabeko taupada-markagailu bat erabil daiteke. Gailu horren abantaila da ohiko taupada-markagailuak larruazalaren azpian dakarren infekzio-arriskua saihesten duela, eta konplikazio hori da ohikoena.

Taupada-markagailu hori zitzada baten bidez jartzen da zain femoralean, eta hortik kateter bat sartzen da, barruan taupada-markagailua duena, bihotzeraino helarazten duguna.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da BARAURIK egotea proba egin baino 6 ordu lehenagotik gutxienez.

Gosariko ohiko botikak ur pixka batez har ditzakezu.

Medikazio antikoagulatzailea hartzen baduzu (Sintrom ®, warfarina, dabigatran, apixaban, erribaroxaban edo edoxaban), medikazio hori nola eman berariaz adieraziko dizute.

Diabetikoa bazara:

- Aurreko gauean ohikoa den intsulina-dosia hartu.
- Ez duzu diabetesaren aurkako pastillarik hartuko gosarian.
- Prozeduraren aurretiko INTSULINA AZKARRA ez hartu.
- Goizean intsulina basala hartzen baduzu (Levemir ®, degludek, glargina), hartu ohiko dosia PROZEDURAREN ONDOREN.

Hortzordea baduzu, harrera-solairuan ospitaleratzean kendu beharko duzu.

Behar izanez gero, eskuineko izterrondoko ileak soilduko dizkizute, baina, nahi izanez gero, zure etxean egin ahal izango duzu proba egin aurretik.

Non egingo didate inplantea?

5. solairuan, AUO Txagorritxuko D eremuan.



Nola egingo didate prozedura?

Kasu gehienetan anestesia lokala erabiliz egiten da ebakuntza, eta aldi berean sedazioa eta analgesia erabiltzen dira prozedura modu ezin hobean onar dadin. Horregatik, anestesista batek balioetsiko du.

Ospitaleratze-unitatean hartuko zaituen erizainak zain-bide bat jarriko dizu, ahal dela, eskuineko besoan, prozeduran behar izan dezakezun medikazioa emateko, bai eta iododun kontrastea emateko ere, beharrezkoa bada.

Ohatilan etzango zaituzte harrera-gelan emango zizuten ohe-atorra jantzita, eta beharrezkoa denean soilik biluztuko duzu zure gorputza. Prozedura osoan zure bihotzaren jardueraren erregistroa ikusteko elektrodoak jarriko dizkizute, baita tentsio arteriala hartzeko mahukatxo bat eta atzamarrean saturimetro bat ere.

Ondoren, oihal kirurgiko bat jarriko dizute zure gorputza estaltzeko, eta eskuineko izterondoaren aldea soilik utziko dizute agerian. Era berean, anestesia lokala emango dizute ziztada egingo den lekuan, prozedura mingarria izan ez dadin.

Ebakuntzak 45-60 minutu inguruko iraupena izango du.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ospitaleratuta egongo zara hurrengo 24 orduetan.

Ezingo duzu jan proba egin eta 2 ordu igaro arte.

Gailua inplantatu ondorengo 6-8 orduetan, eskuineko beheko gorputz-adarrak erabateko atsedena izan beharko du.